



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ETA ERAKUNDEEN ADMINISTRAZIOAREN 2006-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta bere administrazio instituzionalaren 200eko ekitaldiaren ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena HKEEren Osokoaren kideek gehiengoz onetsi dute.

Txosten honek kontularitza eta legezko alderdiak eta finantza egoeraren azterketa barne hartzen ditu.

Legezkontasunaren atalean, HKEEk Foru Aldundiaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Langileen alorrean erakunde fiskalizatzaileak uste du, aurreko ekitaldian adierazi zuen bezala, ordaindutako aparteko lizentzia emateak, errelebo kontratu bati loturiko erretiroa hartu zuten zazpi langileri emandakoak, kontratu mota honen filosofia desitxuratzen duela.

Legea betetzeari buruzko iritziaren atalean, gainera, administrazioko kontratazioan izan diren hainbat ez-betetze jaso dira. Honela, bada, guztira 1,3 milioi euro egin dituzten 17 kontrataziotan, publizitate eta lehia printzipioak urratuz gauzatu dira, horiek ez ezartzeko apartekotasuna arrazoiz justifikatu gabe, edo kontratuaren xedea zatikatuz, printzipio horiek gordeko dituzten prozedurak sustatzera behartzen duten muga kuantitatiboetara ez iristearren.

Berebat, Aldundiak ez ditu publizitate eta lehia printzipioak bete ekitaldiko basalan guztietan (184 espediente, 4,9 milioi euroko zenbatekoarekin), banaka zuzenean esleitu baititu, espediente homogeneotan metatu eta lehiaketa publikoa bideratu ordez. Beste kasu batean, Diputazioak obra baten aldakuntza onetsi aurretik exekutatu zuen.

Gainera, BFAk zuzenean eta deialdi publikoa egiteko ezintasuna egiaztatu gabe 16,6 milioi euroko 35 diru-laguntza eman ditu. Diru-laguntza molde honek apartekoa izan behar du eta alde aurretik deialdi publiko bitartez emakida egiteko ezintasuna justifikatu behar du, laguntza motaren balizko onuradun guztiei irispidea izatea



bideratuko duena. Halaber, atal honetan bertan Epaitegiak akatsak sumatu ditu “aurrekontuan nekez aurreikus daitezkeen ezustekoen” kontzeptuan emandako dirulaguntzetan, izan ere ez baita diruz lagungarri diren ekintza horiek kontzeptu horri dagozkiola irizten, baita landa inguruneko inbertsioak diruz laguntzen dituen lerroan ere, zeinetan 41 eskabide bota ziren atzera, horretarako arrazoiak batere justifikatu gabe.

Bestetik, Foru Administrazioaren kontuei dagokienez, txostenak aldeko iritzia azaldu du aurkezpen eta edukiari dagokionez, nahiz Aldundiak aurkeztutako saldoei hainbat zuzenketa egiten dizkien, dela aurrekontuaren likidazioari buruzkoak, dela balantzeari buruzkoak.

Zuzenketa hauetarik gehienak erakunde fiskalizatzaileak onartu ez dituen eragiketak erregistratzeko irizpideen aplikazioari dagozkio, zeinak Pilatutako Emaidza Erabilgarria 7,8 milioi euro gehitzen duen, 270 mila euroan jarriz.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Erakundeen Administrazioari dagozkion ataletan txostenak 2006eko ekitaldian existitzen ziren hiru erakunde autonomoak, hamasei foru sozietate publikoak eta zuzenbide pribatuko ente publikoa aztertu ditu.

Erakundeen Administrazioa osatzen duten entitate bakoitzari dagokionez, HKEEK azaleratu dituen ez betetzeak eta aurkeztutako kontularitzako saldoen salbuespenak azpimarratu dira eta erakunde fiskalizatzailearen iritzi orokorra aldekoa izan da, adierazi diren ez betetze eta hutsak salbuetsita; besteak beste, azpimarragarriak dira Bizkailur, SA sozietate publikoari buruzkoak, eraikuntza enpresa batekin izenpetutako hitzarmenak direla-eta.

Orobat, Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalei, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, dirulaguntzen emakidari eta langileen kudeaketari dagozkionak.

Azkenik, gauzatutako finantzaren analisisian sarrera propioek izan duten igoaldia azpimarratzen da, azken 4 urteetan ia % 40 hazi direnak.